habitual en los trenes o automóviles convencionales. Según su inventor, de este modo se lograba que el tren fuera indescarrilable, al situar el centro de gravedad en el mismo plano que las ruedas adicionales de guiado y, por lo tanto, el par de vuelco era nulo. Por otro lado, la disposición de la vía, apoyada en esbeltas columnas sobre el terreno, reducía al mínimo los gastos de expropiación de terrenos, obviaba los problemas con los pasos a nivel comunes en los ferrocarriles convencionales y permitía una más fácil adaptación a las irregularidades del terreno. Con el ultraaligeramiento se esperaba lograr alcanzar las más altas velocidades con un bajo consumo energético.

Goicoechea fue madurando sus proyectos hasta que el 1 de septiembre de 1967 constituyó la Sociedad Anónima de Trenes Vertebrados con el objeto de desarrollar su invento. El 1 de febrero de 1968 esta compañía firmó un contrato con la firma francesa Brissonneau & Lotz, especializada en la construcción de los metros sobre rodadura neumática de París, algo de especial interés ya que el ingeniero vasco también apostaba por este tipo de ruedas para su tren. Por otra parte, para el diseño del sistema de vía contrató al ingeniero Carlos Fernández Casado, una de las mayores eminencias españolas en materia de estructuras en hormigón armado.





**Prototipo del tren vertebrado de Goicoechea experimentado en la estación de Santa Cruz de Campezo (Álava).** Archivo EuskoTren/ Burnibidearen Euskal Museoa-Museo Vasco del Ferrocarril.

Construido el prototipo, Alejandro Goicoechea logró que la empresa ferroviaria estatal Feve le cediera los terrenos de la antigua estación del ferrocarril Vasco-Navarro en Santa Cruz de Campezo (Araba), donde en diciembre de 1969 emprendió una campaña de ensayos del tren construido en Francia en un tramo de vía montado con este fin, que incluía también una solución al acceso de los viajeros. Es preciso tener en cuenta que, al situar el plano de rodadura en el mismo nivel que el centro de gravedad del tren, el carril se encontraba a media altura respecto a la caja del vehículo por lo que era necesario disponer de tramos escamoteables a la altura de las puertas que permitieran la entrada y salida de los pasajeros.

Concluidas las pruebas, la Sociedad Anónima de Trenes Vertebrados intentó comercializar su producto. Para ello planteó desde su utilización en servicios de largo recorrido entre Madrid y Valencia, con un tiempo de viaje de menos de dos horas, hasta la sustitución de ferrocarriles de vía estrecha clausurados o altamente deficitarios. De hecho, hay constancia de propuestas para instalarlo entre Sant Feliu de Guixols y Girona, o en el ferrocarril de Reus a Salou, así como en el ramal

ya entonces sin servicio de Zumaia a Zumaia-Puerto en el ferrocarril del Urola, o en el «Topo» de Donostia a Hendaia. Con este motivo llegó a exponerse en la capital guipuzcoana, frente al Ayuntamiento, en 1972.

Ninguna de estas propuestas llegó a materializarse, lo que no desanimó a sus promotores que decidieron construir un nuevo tramo experimental que, además, prestaría servicio público. Aunque la idea inicial era establecer una línea entre Las Palmas de Gran Canaria y Maspalomas, en un recorrido de 55 kilómetros de longitud, la realidad fue mucho más modesta, ya que el tramo inaugurado el 26 de junio de 1974 apenas cubría una distancia de 1,5 kilómetros. Sobre ella rodaba una nueva composición, también fabricada en Francia por Brissonneau & Lotz, formada por dos coches o vértebras de control extremas, que encuadraban otras cuatro vértebras para el transporte de viajeros. Pese a su aspecto futurista, el invento no cuajó y meses después fue desmantelado.

Alejandro Goicoechea murió en Madrid el 30 de enero de 1984, a la edad de 89 años, sin ver convertidos en realidad sus trenes vertebrados. De hecho, pese a que desde los años treinta del pasado siglo este ingeniero vizcaíno afirmase que los trenes tradicionales de ruedas de acero con pestaña de guiado sobre carriles del mismo material estaban tecnológicamente superados, lo cierto es que los modernos trenes de alta velocidad desmienten a diario sus palabras.

**Juanjo Olaizola Elordi**
Director del Museo Vasco del Ferrocarril



**Interior del último vagón del Talgo.** Ricardo Doliwa.


CARBON

Joseba Gorostiza | Txelu Angoitia

# Funtzioa Hastera Doa!

## Antzerkigintza Durangaldean

# Herri antzerkitik Geroara

Dantzak, kantuak, musikak edo beste arte adierazpen batzuk Durangaldeko herritarren artean lortutako errotze mailara heltzen ez bada ere, antzerkiak aspalditik izan du leku garrantzitsua eskualdeko agerraldien artean. XVI. mendetik aurrera, erlijio katolikoarekin lotutako auto sakramentalak izan ziren antzerki adierazpen nabarmenenak eta, batez ere, Gorpuzti-eguna ospatzeko eskaintzen ziren. Hala izan zen genero horren debekua XVIII. mendean heldu zen arte.

XVI. mendean eskaintzen ziren agerraldiak 'komedia' bezala ezagutzen ziren, Durangoko Udal artxibategiko agiriek erakusten dutenez. Honela dio 1575eko maiatzaren 27ko dokumentu batek: "Se acuerda que los fieles den dos ducados a la Cofradía de los Pañeros y otros dos a la de los Herreros para hacer la comedia de veneración del Santísimo Sacramento el día del Corpus Cristi".

Hamaika urte geroago lau dukat kobratu zituen eginbehar berdinagatik San Martinen Kofradiak eta 1597an hiru dukateko ordainsaria izan zuen Diego de Navarretek "por el tablado hecho en el cementerio de la iglesia para la representación del auto y comedia del día de Corpus". Ikusten denez, antzezpenak ez ezik agertokiak ere eraikitzen zituzten emanaldietarako.



**1575eko dokumentua.** Durangoko Udal Artxiboa.



✻ ANTZERTI IKASTAROAK

Zaldibar. 1967'gn. Uztailla

ORGANIZA Asociacion Gueradiaga con la colaboracion de "ANTZERKIA".

LUGAR Zaldibar (Vizcaya)

FECHA Dias 16 - 17 y 18 de Julio de 1967

.............

LOCAL DE CONFERENCIAS Y PROYECCIONES: aula de la Escuela

.............

CUOTA POR EL CURSILLO ( 3 dias)..........600.- pts.
incluye: dia 16: almuerzo, cena, y habitacion.
dia 17: des., almuerzo, cena y habitacion.
dia 18: desayuno y almuerzo.

**1967ko ikastaroen kartela.**



**Jesuitetako antzokia.** German Zorraquin.

Ikuskizunak ez ziren beti denen gustukoak izaten. Edo agian erlijioaren ikuspuntutik pasarte desegokiren bat tartekatu zen emanaldiren batean, eta norbaitek salaketa jarri zuen apezpikuaren aurrean, 1624ko agiri batek erakusten duen moduan. “Se acuerda tomar diversas medidas contra la acusación hecha por alguna persona de mala intención de que en la villa en lugar de las Santas Celebraciones del día Corpus habíase representado la comedia del robo de Helena, habiéndose recibido por ello letras de este obispado y no siendo cierta tal acusación”.

Erlijioari lotutako antzezpenen lekua bestelako gaiak jorratzen zituzten ikuskizunek hartu zuten II. Errepublikaren garaian. Ebaristo Bustintza ‘Kirikiño’ gogoratzeko Durangon eta Mañarian 1932ko apirilaren 17an egindako ‘Euzko-Jayak’ ospakizunak, Tabira Antzokian euskaraz eskainiko ziren *‘Astidunak’* eta ‘Negarrez igaro zan atsua’ antzezpenak iragarri zituen. Urte eta areto berean, baina Emakume Abertzale Batzaren antolaketarekin, *‘Gixon-Bikainak, Trapu-Biltzaliak eta Maite’* ikuskizuna eskaini zuten “Tabiratar Batzoki’ko antzeslarijak”.



Geroako taldekideak.

Elkarte Tradizionalistak bere egoitzan antolatutako ekitaldietan berriz, *'¡Qué amigas tienes Benita!'*, *'La Sultana*, *'En capilla'*, *'Anai-biak'*, Otxandioko taldeak eskainitako *'Troquel de raza'* edo Elorriokoek aurkeztutako *'A fuerza de amar'* bezalako antzezpenak, zarzuelak edo saineteak jarri zituen ikusgai.

Durangoko Sindicato Catolico de Oficios Varios elkarteak Zugaza zineman antolatutako emanaldiek, *'Molinos de viento'* opereta eta *'El caserío'* eta *'Luisa Fernanda'* zarzuelen pasarteekin osatutako programa iragarri zuen. Agerraldi horretan izandako zenbait partaide Grupo Lírico Tavira taldeak 1934an eskainitako *'Katiuska'* zarzuelaren abeslari zerrendan ere azaldu ziren.

Gerra zibilak eragindako sarraskiak eta hurrengo urteetako frankismoaren garai ilunek, eragin nabarmena izan zuten kulturan zein antzerkigintzan. Erlijioarekin lotutako lanak berriro hasi ziren nabarmentzen eta 1955ean Durangoko Orfeoiak ibilbide berri bati eman zion hasiera Juan Jose Echartek zuzendutako Calderon de la Barcaren *'La vida es sueño'* auto sakramentalarekin.




1966




1978



1980



**“Muerte accidental de un anarquista”.** Geroa, 1981.



**Geroa taldearen antzerki eskola 70 hamarkadan.**

60. hamarkadaren hasieran, 1961etik 1965era hain zuzen, Basilio Aranak idatzi eta Santa Ana plazan Aste Santuan eskaintzen zen Durangoko Pasiñoaren antzezpenak egin ziren. 180 herritar eta orfeoiko beste 80 kide batzen zituen antzezpena, ‘sekulako ikuskizuna’ bezala iragarri zuten.

Gizartearen garapenak eta kanpotik etorritako kultura, musika eta bestelako jarduera berritzaileek eragin nabarmena izan zuten, batez ere, gazteen artean. Aldaketa horretan zerikusi aipagarria izan zuen Durangoko ‘Los Amigos de San Francisco’ elkarteak kudeatzen zuen Salón San Francisco izandakoak. Bilera eskubidea oso murriztuta zegoen garaia bazen ere, hainbat jarduera egiteko aukera zegoen bertako agertokian, musika edo dantza taldeen agerraldiak zein “antzerki agerraldiren bat”, Geroa konpainiako sortzaileetako bat izan zen Roberto Anduezaren esanetan.




**1981**




**1989**




**1990**

1963. urtea zen eta Anduezaren arabera "antzezlan bakoitzaren funtzio bi edo gehiago egiten ziren; bata, San Frantzisko ikastetxean zeuden barneko neska ikasleei zuzendua zegoen (eta hor buru-belarri aritzen ginen) eta bestea edo besteak gainontzeko ikus-entzuleei zuzendurikoak". Garai horretan *'Sindo el tonto'*, *'El juicio de La Paca'*, *'Nosotros, ellas y el duende'* arrakastatsua, Rubén Darioren *'Los motivos del lobo'* edo irakurrita antzeztu zuten Alfonso Sastreren *'La mordaza'* piezak eskaini zituzten

Emanaldi horien inguruan bildu ziren antzerki zaleek Geroa sortu zuten urte batzuk beranduago, Gerediaga Elkartearen lehenengo zuzendaritza taldeko kidea izan zen Jesus Mari Agirreren arabera. Taldeak nolabaiteko babesa behar zuenez, Gerediagaren baitan antzerkia suspertzeko eratutako Garitaonandia sailean aurkitu zuen aterkia eta lehenengo arduraduna Roberto Andueza izan zen.

Garitaonandia sailak emandako lehen urratsa, hala ere, euskal antzerkiaren historian urrezko hizkiz gordetzen diren Zaldibarko lehenengo 'Antzerti Ikastaroak' izan ziren. 1967ko uztailaren 16tik 18ra bitartean burututako ekimenaren ideia Iñaki Beobide Gerediaga elkarteko bazkidearena izan zen.

Hasierako asmoa Gipuzkoako herriren baten egitea bazen ere, ezinezkoa suertatu zitzaion eta Gerediagako presidentea zen Balendin Lasuen zaldibartarrak bertan egitea eskaini zion. Zaldibarrek bazuen orduan antzerkiarekin lotura estua, Koral Elkartearen baitan antzerki taldea sortu eta Bittor Garitaonandia herriko semearen lanak eskaintzen zituelako.

Zaldibarko jardunaldietako izar nagusia Ricard Salvat izan zen. Adria Gual antzerki eskolako sortzaile eta zuzendaria izateaz gain, Bartzelonako Instituto del Teatroko irakaslea eta ikertzailea, antzerki zuzendari ezaguna edota Bertold Bretchen teknikan aditua zen, besteak beste. Antzezpenari edo aktore teknikari buruz mintzatu zen Salvatekin batera, Iparraldeko antzerkigintza eta pastoralak hizpide izan zituen Pierre Larzabal edo Alemaniako antzerkia jorratu zuen Antonio Maria Labayen ere bertan izan ziren. Jorge Oteiza bertan egongo zela iragarri zen, baina azkenean ez zen azaldu.

Zaldibarren burututako jardunaldiak "euskal antzerkiaren mugarri" izateaz gain "berpizkun-




**Geroa taldearen antzezlana.**



**"Durango, un sueño 1439".** Geroa 1990.

dea" eragin zuela idatzi zuten garaiko egunkariek. Bildutako 76 lagunek, Hego Euskal Herriko 32 konpainietako kideek eta Iparraldeko beste 16koetakoak tarteko, euskal antzerkigintzaren historiaren hausnarketa, euskeraz egindako antzerkiaren egoera edo "herrialde honetako hiri eta herrietan egun batetik bestera gehitzen diren taldeak" izan zituzten hizpide.

Durangoko antzerki zaleak noraezean zeuden garai horretan, nahiz eta "etengabekoak ziren talde bat sortzeko Leopoldo Zugazak emandako animoak eta laguntza". Halako batean, Iurretan erretako baserri baten aldeko jaialdia antolatu zuten eta "ordu erdi inguruko antzezpen bat egitea eskatu ziguten. Luigi Pirandelloren *'El hombre de la flor en la boca'* aukeratu genuen, baina bertan egoteko izen baten beharra genuen eta durangar koadrila bati esperantza edo etorkizuna adierazten zuen izen bat eskatu genion. Eta orduan sortu zen Geroa", Anduezaren esanetan.

Talde sortu berriak Astarloa zinemaren gaineko 'Club Juvenil'ean eskainitako Carlos Muñizen *'El caballo del caballero'* izan zen Paco Obregonek ikusi zuen lehenengo antzezpena. "Une horretan bertan erabaki nuen antzerkia egin nahi nuela", gogoratzen du urte batzuren buruan Geroa konpainiako antzezle, zuzendari eta erreferenteetako bat bilakatu zen Obregonek.

Hasierako urte haiek "oso zailak izan ziren, ezer ez zegoelako. Trebatzeko, Berrizen lehenengo eta gero Durangoko alondegiaren gaineko eraikuntzan egon zen antzerki eskola sortu genuen. Hiru urtez, geuk ordaindutako irakasleak ekarri genituen Madrildik", gogoratzen du Obregonek.

Konpainia afizionatu gisa hamarkada bat egin ondoren, profesionalizatzea erabaki zuten garai hartan taldean zeuden Jose Antonio Sarrionandia, Lourdes Olguin, Eva Cortijo, Garbiñe Arejita, Paco Obregon, Julio Perugorria, Alfonso Torregrosa eta Luis Blazquezek. Kooperatiba izaera hartu zuen eta 1978an Lope de Agirre pertsonaian oinarritutako *'Kaixo Agirre'* lehen ikuskizuna estreinatu zuten.

Hamarkada oparoa izan zen 80koa konpainiarentzat. Garai horretan estreinatutakoak dira *'La Mandrágora'* (Nicolas Maquiavelo, 1980); Alfonso Sastreren testu batean oinarritutako *'Historia de la muñeca abandonada'* (1980); *'Her puntilla y su criado Matti'* (Bertolt Bretch, 1984); *'Doña Elvira, imagínate Euskadi'* (Ignacio Amestoy, 1986); *'Grand Place'* (Mario Onaindia, 1987); *'¿Y Antigona...?'* (Joan Casas, 1988), *'Ertzaina al Pil Pil'* (Mario Onaindia, 1988) edo *'Durango, un sueño 1439'* (Ignacio Amestoy, 1990).

Hala ere, 1981ean estreinatutako *'Muerte accidental de un anarquista'* (Dario Fo) izan zen konpainiaren mugarrietako bat. "Bost urteren epean Euskal Herrian emanaldi gehien izan zuen ikuskizuna bilakatu zen; 500 emanalditik gora burutu genituen". Geroaren bigarren mugarria "erderatik euskerara egindako jauzia" da Obregonen esanetan. *'Gran Place'* eta *'Durango, amets bat 1439'* ikuskizunen erderazko eta euskerazko bertsioak egin genituen baina, tamalez, inork ez zion eman inolako garrantzirik".

Lan horrekin lortutako ospeak Euskal Herritik kanpoko agertokietan azaltzeko aukera ekarri zion taldeari. Obregonen arabera "Espainiako ateak, jakina, zein nazioartekoak ireki zitzaizkion euskal antzerkigintzari" eta, Geroari esker, Euskal Herrian egiten zen antzerkiak Estatu Batuetan, Venezuelan, Portugalen, Frantzian eta beste herrialde batzuetan azaltzeko aukera izan zuen. "Hori da Geroaren lorpen nagusietako bat".




1978




1978




1978

## Geroa taldeak gora egiten zuen heinean, beste talde bat sortu zen ezustean 1983an…




"**Terapia?**". Markeliñe, 2008.

El Carmelo ikastetxetik lagunak ziren Iñaki Egiluz, Joserra Martinez eta Javi Renobales zornotzarrek oporretan joan nahi zuten baina diru gutxi zutela eta, Egiluzek kalean mimoa egitea proposatu zien beste bi lagunei. "Peter Roberts mimo eskoziarraren agerraldi bat ikusi ondoren, Iñakik zera proposatu zigun: kalean mimoa egin eta txapela pasatuz, lortutako diruarekin oporretan joan ahal izango ginela. Baina ez ginen oporretan joan", gogoratzen du Martínezek. Hala ere, Markeliñe konpainiaren sorrera izan zen.

Oporretan joan ordez, Robertsek mimo teknikei buruz argitaratutako liburu bat erosi eta beraien kontura lantzen hasi ziren eta El Tricicle konpainiak zabaldutako bideari heldu zioten. Teknika, malgutasuna eta numeroak prestatzen urte bete eman ondoren, asmo handiegirik ez zuen *'Mudo fantástico'* lehen ikuskizuna estreinatu zuten 1984an. Beraien harridurarako, "izugarrizko arrakasta lortu zuten".



**"Plumas celestiales".** Markeliñe, 1989.



**"In extremis".** Markeliñe, 1987.

Bi urte beranduago *'In extremis'* deituriko bigarren antzezlana estreinatu zuten eta "jendearen harrera ona izan bazen ere kritika ugari jaso genituen lankideengandik. Agian, inozo izateak ematen duen ausardiarekin jokatu genuen", Martínezen esanetan.

Kritiken eraginez, laguntza eskatu zioten une goxoan zegoen Geroa konpainiari eta Paco Obregonen bitartez antzerkiaren beste ikuspegi batekin jabetu ziren. Orduan ohartu ziren "antzerkia Peter Robertsen liburua baino askoz gehiago zela eta han-hemenka ibili ginen teknika desberdinak ikasten".

Sei urteko ibilbidearen ondoren, *'Plumas celestiales'* deituriko ikuskizunaren estreinaldiarekin profesionaltasunerako urratsa eman zuten.

Ondoren, *'Armagedon'* (1992) edo *'La vuelta al mundo en ochenta cajas'* (1998) arrakastatsuak estreinatu zituzten. Azken ikuskizun horrekin Estatu espainiarrean ematen den Max sari ospetsua irabazi zuten, eta bi hamarkada ondoren, konpainiaren errepertorioan mantentzen da.



**"Carbon Club".** Markeliñe, 2005.



**"Moby Dick".** Gorakada, 2015.



"**Jules Verneren azken abentura**". Gorakada, 2009.




**1987**

Bestelako norabideari ekin zion 1987an jaiotako Gorakada konpainiak. Durangaldeko zortzi gazteren kemenarekin eta Geroako kide zen Julio Perugorriaren eraginez sortutako taldea, "haurrentzako antzerkia duintasunez egiten" saiatu zen hastapenetik, ia bere sorreratik konpainia zuzentzen duen Alex Díazen esanetan.

*'Tartalo eta artzaina'* (1987) lehen ikuskizuneko *'Peru'* txotxongiloak hainbat oinordeko izan ditu hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidean. Díazen ahalegina eta lana "haurrei eta familiei" zuzenduta egon da hasieratik gaur egunera arte; zeregin horren ezaugarriak eta abiapuntua eskularru-txotxongiloak eta aktoreen lana izan dira. Hala ere, arrakasta handiz estreinatutako 25 ikuskizunetan hainbat teknika, estilo eta eszenaratze garatu ditu Gorakada konpainia abadiñarrak.



**"Carbon Club".** Markeliñe, 2005.



**"Terapia?".** Markeliñe, 2008.



"Ametsen faktoria". Karrika, 2008.



"Zapoi". Karrika, 2015.

# Pasioa eta pedagogia

"Euskara bultzatzea, gazteentzako euskal antzerkiak gidoigintzan zituen hutsuneak betetzea eta edozein proiektu aurrera eramateko orduan talde lanak duen balore eta garrantziaz ohartzea" dira Kurutziaga ikastolan hiru hamarkadatan garatzen ari diren Antzerkigintzari lotutako ekimenaren oinarriak.



Erdian, Joxe Martin Urrutia "Txotxe".

Gaur egun Idoia Sopelana, Miren Erdoiza eta Amaia Jaiok gidatzen duten arloa, Elena Fernandezek eta gizarteko irakasleek abiatu zuten: "kurtso amaieran antzerki bat egiten zuten ikasturtean zehar ikasitako gairen batekin lotuz", Sopelanaren esanetan.

Gai curricularretan antzerkigintza txertatzea helburu zuen egitasmo horri, bultzada sendoa eman zion Jose Martin Urrutia 'Txotxe' elgoibartarraren etorrerak. Hasieran ekimen horretako laguntzaile gisa eta ondoren berak gidatutako tailerretan egindako ekarpena "oso baliotsua" izan dela deritzo Sopelanak. "Gazteekin lan egiteko beste era bat sortu zen, askoz ere hurbilagoa zena, eta, era berean, gazteekin beste mota bateko gaiak lantzeko aukera ematen zuena, gaur egun zeharkako gaiak bezala izendatzen direnak".



"**Zapoi**". Karrika, 2015.



"**Kalkuta**". Karrika, 2011.

## 200 LAGUNETIK GORA PASATU DIRA BI HAMARKADETAN ZEHAR KARRIKAK EGINDAKO IBILBIDEAN

'Txotxe'ren lan arloa Orientazio Departamentuari atxikita egon arren, Taupada eta Ekekei konpainietan lortutako esperientzia baliatu zuen bere ezagutza eta trebeziak geletara eramateko eta ikasleen hazkuntza pertsonala garatzeko. 1986tik aurrera ikastolan erakutsitako grina, inplikazio eta hurbiltasunagatik, lankide, irakasle zein gurasoen onespena eta errespetua irabazi zituen.

Laguntzeko zuen prestutasuna ez zen bere lantokira mugatu eta 1998an Durangoko Fray Juan de Zumarraga institutuan antzerki talde bat sortu nahian noraezean zebilen gazte talde batengana gerturatu zen. Titiritero elgoibartarrak emandako bultzadarekin sortu zen gaur egun San Agustin Kultur Guneko talde egoiliarra den Karrika Antzerki Taldea.

Konpainia amateur horretatik 200 lagunetik gora pasatu dira bi hamarkadetan zehar egindako ibilbidean. Horietako bat, otsailaren 3an *'Handia'* pelikulan egindako lanagatik aktore berri onenaren Goya sari ospetsua eskuratu zuen Eneko Sagardoy da. Konpainia horretan zaildutako antzezle durangarrak gogoan izan zuen hurrengo egunean hil zen irakaslea; 'Txotxe'k eta Karrikak "antzerkia eta furgonetak kargatzen irakatsi zidaten, eta horregatik nago ni hemen", bihotzez eskertu zion Sagardoyk agertokitik.



**“Zapoi”.** Karrika, 2015.



**“Ametsen faktoria”.** Karrika, 2008.

# Paperetik agertokira

Aktoreek edo konpainiek agertokian antzezpen bat eman aurretik hainbat pausu eman behar dituzte ikuskizuna gauzatzeko, eta guztietatik lehenak ideia lantzea eta antzezlana idaztea dira. Durangaldean, zoritxarrez, ez dira gehiegi izan oholtzan antzezteko testuak idazteari ekin dioten dramagileak.



**"Ulisesen bidaia".** Gorakada, 2017.

Ebaristo Bustinza 'Kirikiño'k 1914an idatzitako *'Anton Berakatz'* bakarrizketa da eskualdeko idazle baten euskarazko lehenengoetako antzezlana. Horren ondoren, beste zenbait egileren lanak moldatu zituen mañariarrak, hala nola Alfredo Etxabe bilbotarraren *'Lelo'* euskaratu zuen edo Jose Elizondo tolosarraren *'Txomin Arraio'* komedia bizkaierara moldatu zuen.

Garai berekoa den Bittor Garitaonandia, apaiz zaldibartarra, Argia astekariaren sortzaile eta zuzendaria izandakoak, dramaturgo ibilbideari ekin zion sarritan antzeztuak izan ziren lanak idatziz. Bere lehen piezarekin, 1918an idatzitako *'Iziartxo. Bi egintza'dun antzerkia'*, Donostiako Udalak antolatutako lehiaketaren lehen saria irabazi zuen. Ondoren, *'Aitona eta billoba. Bi ataldun antzerkia'* (1920) eta 1922ko Donostiako lehiaketan saritua izan zen 'Ongillearen sariya' idatzi eta argitaratu zituen.

Aita Santi Onaindiak egindako 'Euskal Literatura'-ren sei ataleko bilduma ikaragarrian, Sabin Alonso Ariño elorriarraren antzezlan baten aipamena egiten du. Herriko 'Argiñeta' aldizkarian zein Bilboko 'Anaitasunan' eta Donostiako 'Zeruko Argian' idazteaz gain, batez ere ipuinak idazten zituen Alonsok, "badauka teatru-lan bat ere, iru ekitalditan, oraindik argitaratu gabe, 'Errugabea' deritzana", karmeldarrak idatzita utzi zuenez.




**"Chef Nature".** Markeliñe, 2018.



**"Ogro txikia".** Gorakada.



**"Andante".** Markeliñe, 2014.

# 1991EAN BAQUE-GEROA-DURANGO ANTZEZLANEN LEHIAKETAREN LEHEN EDIZIOA EGIN ZEN

Geroa konpainiak, Durangoko Udalak eta Cafés Baqué enpresak ekimen azpimarragarria jarri zuten abian 1991n, "antzerti testuen sorrera sustatu asmoz" elkarlanean deitutako Baqué-Geroa-Durango antzezlanen lehiaketaren lehen edizioa hain zuzen ere. Eratutako sari bakarra, sasoiko 500.000 pezetakoa, Chatono Contreras madrildarrak eskuratu zuen 1994an Geroak estreinatutako *'Las amazonas del caballo'* piezagatik.

Antzerkirako testuak idatzi dituzten eskualdeko azken sortzaileak bertsolaritzatik datoz. Unai Iturriagak eta Igor Elortzak antzerkiarekin izandako lehen harremana, Kurutziaga ikastolako antzerkigintza gai curricularrekin txertatutako egitasmoan izan zen. "Ikasturte oso baten antzezlan bat lantzen genuen eta ikasturte amaieran antzeztu egiten genuen", Iturriagaren esanetan.



"Txotxe" eta Unai Iturriaga.

Lehen hartu-eman horrek ez zuen jarraipenik izan. Testu dramatikoak sortzeko aukera "gu biokin bertsotan ibilitako Ander Lipus (Iñigo Ibarra) antzezle markinarraren eskutik etorri zitzaigun. Berarekin nolabaiteko harremana mantentzen genuen eta *'Errautsak'* antzezlana idaztea proposatu zigun. Eurek testua nahiko aurreratua zuten eta gidoia egin baino gehiago dialogoak idatzi genituen".

Lehen elkarlan horrek bigarren bat ekarri zuen eta Iturriagak eta Elortzak *'Francoren bilobari gutuna'* idatzi zuten antzerki garaikidearen ezaugarrietan murgilduta. Ikuskizunaren zuzendaria izan zen "Ximun Fuchsek eta bere anaia Manexek antzezleen familiak II. Mundu Gerra garaian bizi izandako istorio bat jarri zuten mahai gainean. Abiapuntu horretatik eta antzezleekin eta zuzendariarekin egindako inprobisazioetan oinarrituz eraiki genuen ikuskizuna. Sorkuntza prozesua, beraz, behetik gora egin genuen".

Esperientzia horren hirugarren atala Iturriagak idatzitako *'Hozkailua'* izan zen, "baina prozesua antzerakoa izan zen, nahiz eta gaia Lipusek eta biok izandako elkarrizketetatik abiatu zen. Paperak dena aguantatzen du baina idatzitako testua probatzen denean, aldaketa ugari egin behar dira eta ikuskizuna antzezleen jokoarekin osatzen da".



# Antzokien loraldia

Gerra zibilaren aurretik, zine eta antzoki erabilera zuten Astarloa, Zugaza zein Tabira aretoek. Horrekin batera alderdi politikoen lokaletan, elkarte tradizionalistarenean esaterako, frontoietan eta bestelako lekuetan ere eskaintzen ziren zuzeneko ikuskizunak.





**"Salón Dominical" aretoa.** Carlos Alvear.

Ezohiko lekuak baziren ere ez ziren harrigarrienak; Geroa konpainiak Zaldibarko Bergareche, Garitagoitia y Cía. enpresaren pabilioian antzeztu zituen Buero Vallejoren *'Las palabras en la arena'* eta Bertolt Bretchen *'El soplón'* antzezlanak 1967ko irailaren 18an.

Durangoko 'Salón Dominical' izenarekin ezagutzen zen aretoa izan zen antzerkia eta zuzeneko emanaldietarako egokitutako lehenengoetako areto bat. 1971n Santa Anako parrokiak zuen lokala atontzen hasi ziren eta "garbiketetan bi egun eman ondoren, piano bat aurkitu genuen bertan bildutako trasteen artean", gogoratzen du Paco Obregonek. Atontze lanak amaitu aurretik, "agertokia berritu, berogailua jarri eta bestelako osagarriak behar ziren oraindik" Roberto Anduezaren esanetan. Hala ere, Bertolt Bretchen *'La excepción y la regla'* antzezlanaren bi emanaldi eman zituzten bertan.



**San Agustin Aretoa.**




Ganso&Cia.

## 90EKO HAMARKADAN SANTA ANA OSTEKO ‘SALÓN DOMINICAL’ ZEN DURAGON ZEGOEN ARETO BAKARRA

Azoka plaza edo San Agustin eliza ere antzezlanak taularatzeko erabili ziren. Obregonek eskola izandakoari buruz gordetzen duen oroitzapena adierazgarria da: “meritu izugarria zuten gure antzezlanak ikusten joaten zirenek, akustika oso txarra zelako eta bertako tenperatura oraindik eta tamalgarriagoa zelako”.

Durangoko auzoak ere agerleku izan ziren 70eko hamarkadako lehen urteetan, urte haietan bost antzerki ziklo antolatu zituen oraindik profesionalizatu gabe zegoen Geroak. “Udalak emandako diru apur batekin eta dendaz denda batutako pezeta eta ogerlekoekin, San Fausto, Juan de Iciar edo San Roke auzoetan emanaldiak antolatu genituen”, gogoratzen du Obregonek. Bertaratutako taldeak, gainera, Espainia mailan zeuden puntako konpainia independenteak izan ziren: Els Joglars, Teatro de la Rivera, Tábano, Teatro del Mediodía eta beste hainbat.

90eko hamarkadan Santa Ana osteko ‘Salón Dominical’ zen Duragon zegoen aretoa eta Geroako kidea zen Julio Perugorria arduratzen zen bertako programazioarekin. Ordurako martxan zegoen Elorrion zuzeneko emanaldiak zein zinea ema-

teko egokitu zen Arriola Kultur Aretoa. Ohitura berriak eta kulturaren egarria asetzeko beharra aldarrikatzen zuten hainbat elorriarrek eta Udalak itxita zegoen zinea erosi eta beharrezko egokitzapenak egin zituen. 1988ko urriaren 2an ireki zituen ateak.

Antzerako garapena izan zuen bost urte beranduago Zornotza Aretoak. Udalak “pribatua zen Cine Zornoza erosi zuen 1991ean eta antzoki bat egitea planteatu zuen. Horretarako, hainbat lan egin behar izan ziren. Patioa eta anfiteatroko estruktura ez zen ukitu baina beste dena hustu egin zen, agertokia oso txikia zelako eta estruktura eszeniko berria egin behar zenez teilatua altxatu egin zen”, Luis Javier Ugarte kultur teknikariaren esanetan.

Beste bost urte igaro ziren eskualdeko hirugarren antzokia gauzatu arte. Durangoko San Agustin Kultur Guneak 1998ko irailaren 11n ateak ireki zituen, eliza izandako eraikinean beharrezkoak ziren lanak egin ondoren.

Berriagoak dira Iurretako Ibarretxe Kultur Etxea, Berrizko Kultur Etxea zein Abadiñoko Errota Kultur Etxean egindako aretoak, guztiak 2000. urtetik aurrera irekitakoak baitira. Antzoki sare ederra osotu dute denen artean eta urtean zehar prestatzen eta eskaintzen duten programazioa, eskualdeko zein inguruetako arte eszeniko zaleak asetu ditzake.

**Joseba Gorostiza** | Kazetaria



Cecilia Paganini San Agustin Aretoan.

IK4 AZTERLAN
Research Alliance

METALURGIA IKERKETA ZENTROA
CENTRO DE INVESTIGACIÓN METALÚRGICA






METALURGIAN EZAGUTZA AURRERATUA
INDUSTRIAREN eta GIZARTEAREN zerbitzura

Lehiakortasuna bultzatuz

Jasangarritasuna sustatuz

Pertsonekin eta inguruarekin konprometituta




Aliendalde Auzunea, nº6, 48200 Durango (Bizkaia)
azterlan@azterlan.es / 946 215 470

www.azterlan.es

+INFO> WWW.KMON.INFO

KMON .info

KMON KULTUR MAGAZINE | EL MAGAZINE DE LOS ESCENARIOS





Jon Irazabal Agirre | Txelu Angoitia / Archivos

# Arandia

## *Una tierra con historias*



Arandia, en la anteiglesia de Iurreta, es el acceso natural, desde las tierras de Bizkaia, al gran valle que genera el Ibaizabal y que históricamente se ha conocido como la “Tierra de Durango”. Hoy en día, la gente vincula Arandia al puente y a los restos de la ferrería adyacente al Ibaizabal pero Arandia, es un área mucho más amplia. La ermita de Santa Apolonia se cita en los documentos como la ermita de San Julián y Santa Apolonia de Arandia. En su jurisdicción acogía, además de los caseríos situados frente a la ermita y el complejo fabril, los de Aldekoa, Barrenengoa, Arandiatorre, los dos de Amoruaga, Lebariotegi etc. Arandia es la gran llanura que en la margen izquierda del río Ibaizabal da acceso al barrio de Orozketa, de cuya cofradía forma parte.



Antepara y edificio de la ferrería. Ricardo Doliwa, 1950.

Esta tierra, insegura en el Medievo, hace su entrada en la historia en el año 1075, cuando los monjes de San Millán de la Cogolla fundan un nuevo centro religioso en ella, con la clara pretensión de explotarla. Tras la fundación, los curas de San Trokaz de Abadiño pleitearon contra los de San Millán de la Cogolla, en base a que era un témino de su jurisdicción y no procedía que fuera administrado o explotado por los monjes riojanos. El juez dictaminó a favor de San Millán de la Cogolla, pero les ordenó que compensaran a los de Abadiño con la ofrenda de varias vacas.

## San Julián o Santa Apolonia de Arandia

Tras ese dato puntual de 1075 su historia es desconocida. La advocación original de la ermita de Arandia sería la de "San Julián y Santa Basilisa",



Ermita de San Julián.



Ábside y altar de la ermita de San Julián.

aunque en los documentos se le cita como ermita de "San Julián y de Santa Apolonia", y se celebran las fiestas el 9 de febrero, festividad de Santa Apolonia. Era costumbre que ese día acudiera a la ermita la Corporación de Durango, siendo recibida por la de Iurreta. Previamente, el 22 de enero, festividad de San Vicente, la Corporación de Iurreta giraba visita a la ermita de San Vicente de Mikeldi, donde era agasajada por las autoridades duranguesas.

La ermita presenta un ábside semicircular y, en el interior, un arco de medio punto separa la nave y el presbiterio. Tiene un retablo con la imagen de Santa Apolonia en su centro, la imagen de San Julián a un lado y, al otro, una supuesta imagen de Santa Basilisa.



**Camino de Arandia. Al fondo, la ferrería y antigua panadería de Pedro José Onaindia.** Ricardo Doliwa.

En el siglo XVIII estaba en ruinas. En 1793 el obispo Francisco Mateo de Aguiriano y Gómez prohibió la celebración de la misa y ordenó su demolición en caso de que no fuera reparada. A lo largo del siglo XIX se procedió en diversas ocasiones a su arreglo. En marzo de 1892 un vendaval destruyó su tejado, por lo que, sufragada por el ayuntamiento y los vecinos, se edificó una ermita de nueva planta, conservándose solamente la fachada donde se asienta la puerta de acceso. En 1986 fue restaurada a iniciativa del jesuita Vicente Zabala y en 2005 los integrantes de un "campo internacional de trabajo" rehabilitaron los muros exteriores. Actualmente, su estado es deplorable, con grave riesgo de ruina.

## *Torre de Arandia*

Arandia era una zona estratégica. Por ella discurría el camino que unía Bilbao con Durango y Gipuzkoa, y circulaban gran cantidad de mercancías y viajeros a los que se cobraban portazgos y otros tipos de gravámenes financieros. Ese control se ejercía desde la torre de Arandia, un linaje secundario asociado al bando oñacino y vinculado a la torre de Muntsaratz de Abadiño. Además de controlar los movimientos comerciales, también mantenía sus funciones militares en uno de los accesos al Duranguesado en una época inestable, inmersa en la guerra de bandos de finales de la Edad Media.



**Caserío Torre en los años 70.** Foto Sol.



**Carretera de Santa Apolonia.** Ricardo Doliwa.

En 1446 en pleno enfrentamiento entre los partidarios de Pedro de Abendaño y los de Gómez González de Butrón, éstos últimos asediaron la torre de Muntsaratz en Abadiño. A pesar del uso de una bombarda, en el ataque no consiguieron rendir la torre. El señor de Butrón se vio forzado a retirarse y en esa retirada se vengó quemando la torre de Arandia y la de Berna.

El poder de los Arandia se supeditaba originariamente a la anteiglesia de Iurreta pero, más tarde, pasó al área de la villa de Durango, donde personajes enlazados con el linaje de Arandia ejercieron cargos municipales y eclesiásticos.

Arandia era un paraje muy peligroso. Se sucedían cantidad de robos e incluso muertes de viajeros en las que estaban implicados los moradores tanto de la torre de Arandia como la de Berna. Una muestra de ello es el pleito que, en 1515, se interpuso a Ochoa de



Ermita y caserío San Julián.

Arandia por heridas producidas a Juan de Echaburu. En 1545 pleitearon el duranguésJuan Saez de Barrasqui y Pedro de Arandia por la muerte de Juan de Arandia. Años más tarde, en 1571, Martín de Iza de Durango y Martín Domingo de Arandia acudieron a los tribunales por un ataque con heridas graves. Además, Juan Martínez de Arandia tomó parte, en 1595, en el intento de matar en la Junta de Gernika al licenciado Gómez de la Puerta, que había sido corregidor del Señorío de Bizkaia, y a su teniente de licenciado García Pérez de Castilla.

La pacificación del país, con el final de la guerra de bandos, hizo que la casa torre perdiera su uso militar y en un momento desconocido la vieja torre banderiza, como sucederá con otras muchas otras, dará paso a un edificio.

## Caseríos de Arandia

En esta pequeña llanura, además de la citada torre (hoy caserío) y del conjunto fabril, se levantaban varios caseríos. No conocemos sus fechas de construcción, debiéndonos de conformar con las referencias que hallamos en diferentes documentos. En el último cuarto del siglo XVI se citan los caseríos Lebariotegi (1570) e Iturriotz (1579) y en las primeras décadas del siglo XVII son citados Aldekoa (1614) y Erdoiza (1628).

Entre los caseríos destaca, frente a la ermita, el caserío de San Julián. Bello caserío, construido en 1764, con doble arcada que en su poste o columna central presenta una talla mostrando el rostro de un angelote o quizás una alegoría al viento. Se complementa con la inscripción de la fecha de

construcción y las llaves de san Pedro. Sobresale sobre todo su fachada decorada, hoy día muy deteriorada, que presentaba en su centro un reloj solar y sobre la imposta existente entre la planta baja y el primer piso una cenefa decorada con aves, cazadores y otros elementos dibujados esquemáticamente. El resto de la fachada estaba pintada simulando piedras de sillería. Esta construcción del siglo XVIII posiblemente sustituyó a una anterior, dado que dicho caserío ya es citado en la fogueración redactada en 1704. En esta fogeración además de las edificaciones señaladas, se reseñan el caserío Barrenengoa, y otras dos con el nombre de Arandia-goitia.

## *Conjunto fabril de Arandia*

Además del trabajo en la agricultura y ganadería, la industria ha sido muy importante en este enclave. Muestra de ello es el conjunto fabril de Arandia, hoy en día en ruinas, compuesto por la ferrería propiamente dicha, la habitación o vivienda de los propietarios o empleados, el molino, la presa y el puente, que formaba parte del camino real que transcurría de Durango a Bilbao.



**Puente, presa, y dos vistas de los restos de la ferrería de Arandia.**



La primera cita conocida de la ferrería de Arandia es de 1542.



**Antiguos planos de la zona.**
Archivo Fundación Sancho el Sabio.

Se desconoce el origen y momento en que fue erigida la ferrería de Arandia. Es de suponer que fue en la Baja Edad Media, cuando el movimiento industrial, y sobre todo la actividad de las ferrerías en el Duranguesado es importante. En el caso de Arandia, la primera cita conocida es de 1542. En 1576 en una de las sesiones del ayuntamiento de Durango se menciona “el camino que va a la ferrería de Arandia”. En 1600 el rentero de Durango se queja de que en las ferrerías de Belaustegi, Etxebarria, Orobio y Arandia se vendía hierro de forma fraudulenta.

Había diferentes tipos de ferrerías. Las “ferrerías mayores” se dedicaban a fundir el mineral de hierro y suministrarlo en grandes tochos a las ferrerías menores para su transformación. Las “ferrerías tiraderas” fundían hierro pero generando barras más manejables para su manipulación y las “sarteneras” fabricaban sartenes, palas, rejas de arados y otros útiles. La ferrería de Arandia ejerció las tres modalidades según la época de su historia. En 1644 aparece como ferrería mayor. En 1796 como tiradera y al final como sartenera.

Disponer de un río como el Ibaizabal, con un gran caudal de agua durante todo el año, posibilitó la instalación de un ingenio fabril que podía producir hasta en los meses de estío. Pero esa cercanía al río también le hizo sufrir las consecuencias que las periódicas riadas producían en el puente, la presa y sus canales. A todo lo largo de su historia, desde el siglo XVI al XX, hallamos referencias a daños generados en la ferrería de Arandia por avenidas del Ibaizabal.



**Ermita de San Julián.**

Cuando el asturiano Gaspar Melchor de Jovellanos viaja por Bizkaia en 1791, visita las ferrerías de Berna y Arandia, que estaban "secas", es decir cerradas. Más adelante se volverían a abrir, como constatamos en la documentación municipal. En 1811 su propietario, Francisco Xabier de Azkarraga, declara que en el bienio 1808-1809 se elaboraron 731 quintales de hierro. La ferrería dejó de desarrollar su actividad industrial hacia 1834-36.



**Detalle del puente de Arandia.**

Al disponer de una presa con su correspondiente esclusa, era habitual que las ferrerías cohabitaran con instalaciones harineras o que las ferrerías se transformaran en molinos. Tenemos constancia de ello desde 1513, cuando Pedro Beltrán de Bedia de Zaldibar, Marina de Guerra, Juan Ruiz de Muncharaz y Martín Ibáñez de Salcedo pleitean en torno a los molinos de Arandia. En 1627 se le cita en las cuentas del mayordomo de la iglesia de Iurreta. Durante el siglo XX se instaló, en el mismo lugar, la panadería de Pedro José Onaindia el cual, en 1928, erigió la casa, diseñada por el arquitecto Juan Arancibia, que se levanta junto al puente de Arandia, entre el río y la carretera nacional 634.

Las referencias al puente de Arandia que salva el río Ibaizabal nos llegan, generalmente, tras haber sufrido daños por grandes avenidas de agua. La primera cita la encontramos en 1553, cuando el Ayuntamiento de Durango cede a Otxoa Ruiz de Lariz varios árboles para reparar dicho puente, que posiblemente sería de madera, afectado por una riada. El actual puente de piedra fue levantado en el siglo XVIII y era de propiedad particular. En 1890 Martín de Ereñaga y siete vecinos más del entorno de Arandia reconocen que el puente, al igual que la presa y la ferrería, son propiedad de José María de Ampuero y firman un acuerdo ante el notario de Durango, Tomás de Areitio, para poder hacer uso del puente, a cambio de hacerse ellos cargo de las reparaciones que necesite.





Vistas del Ibaizabal desde el puente de Arandia.



Puente y antigua panadería de Onaindia.



Rebaño en la zona de Arandia.



**Rio Ibaizabal a su paso por Arandia.** Foto Sabino Ansorena.

En cuanto a la presa erigida en el río Ibaizabal, es de suponer que fue contemporánea a la ferrería, ya que es uno de sus elementos básicos. Al estar en el cauce del río, recibe de manera directa el impacto de las aguas así como los efectos de las riadas. De 1596 es la primera reparación de la que tenemos constancia, según consta en el primer libro de cuentas de Iurreta. Medio siglo después, en 1655, nuevamente será reparada y, de nuevo, sufrirá daños por una riada en 1671. Según la documentación que se conserva en el Archivo del Corregimiento, en 1801 una avenida de agua dejó prácticamente sin presa a la ferrería. Otra avenida rompería la presa en 1842.

En los albores del siglo XX, las campas de Arandia fueron testigo de los inicios de la aeronáutica en Euskal Herria, y a punto estuvieron de albergar el aeropuerto que más tarde se construiría en Sondika, tal y como se reseñó en el número 3 de esta revista Astola. Fue también un lugar vinculado a la cantería, con canteras de piedra arenisca para las que llegó a disponer hasta de un cargadero de ferrocarril.

La extensa llanura de Arandia, es sin duda, un territorio de hábitat y tránsito lleno de historias.

**Jon Irazabal Agirre** | Ikerlaria




# Lekuan lekuko historia

anboto komunikabideak

Anboto Komunikabideak

@anboto

www.anboto.org

@anbotokomunikabideak

Bidali ALTA 688635041 zenbakira
whatsapp bidezko mezua bidalita


durango
gustura, a tu gusto
SALTOKA!
Durango familian bisitatzeko arrasto joku bat!
¡Un juego de pistas para visitar Durango en familia!
Eskuratu zure jokoa turismo bulegoan
Consigue tu juego en la oficina de turismo
Kurutziaga, 38 · 48200 Durango
T (00 34) 94 603 39 38
www.turismodurango.net
Kartak eta eranskailuekin
Con cartas y pegatinas



Garazi Arrizabalaga

# MANAUT

## José Manaut, artista valentziarraren erbestea Durangon

José Manaut margotzen.





José Manaut gaztetan.

DIARIO DE UN CONFINADO.
DURANGO (VIZCAYA).
AGOSTO DE 1944
DÍA 18

¿DURANGO?

UNA ESTACIÓN DE FERROCARRIL DE CIUDAD PEQUEÑA. NO HAY CONSIGNA. CON LA GABARDINA AL BRAZO Y LA CARTERA, DEAMBULO POR LAS CALLES DEL PUEBLO, CUYO NÚCLEO PRONTO ESTÁ RECORRIDO.
LAS SIETE Y MEDIA DE LA TARDE. CALOR Y SOLEDAD, A PESAR DE LA GENTE TOTALMENTE EXTRAÑA PARA MI.
JUNTO A LA ESTACIÓN, UNA GRAN PLAZA CON SU MONUMENTO Y KIOSCO PARA MÚSICA, SOMBREADA CON MAGNÍFICOS PLÁTANOS, Y UN GRAN FRONTÓN DE SILLARES DE PIEDRA, EL CLÁSICO FRONTÓN VASCO DONDE LOS PELOTARIS HACEN SUS PROEZAS.

Tonu malenkoniatsu honekin deskribatu zuen José Manaut pintore valentziarrak 1944ko Durango. Bere ideia errepublikarrak tarteko hiribilduan konfinatu zuen frankismoak. Durangon egin zuen urtean, Manautek egunerokoa idatzi zuen ikusitako paisaiak, ezagututako pertsonak eta erbesteratu modura zituen sentimenduak agertuz.

José Manaut Viglietti Llirian (Valentzia) jaio zen 1898ko urriaren 20an. Bere aita arte kritikaria, abokatua eta kazetaria izan zen. Kultur giro horretan hazi zen Manaut, eta mutiko koskor bat zela, Valentziako Arte Ederren Eskolan (1913-1918) ikasi zuen. Pintura, eskultura eta grabatua lantzen ziren eskola berezi batean jarraitu zituen ikasketak eta bertan irakasle, Joaquín Sorolla pintore ezaguna izan zuen. 18 urterekin, 1916an, bere lehenengo erakusketa egin zuen.




**Manauten Durangoko egunerokoa, 1944/1945.**
Madrilgo Carlos III Unibertsitatearen artxiboa.

MUCHAS CASAS DERRUIDAS POR LOS BOMBARDEOS DE LA AVIACIÓN. CASONAS VETUSTAS TODAS DE PIEDRA CON ESCUDOS NOBILIARIOS ADMIRABLES. UN RÍO PEQUEÑO QUE ATRAVIESA LA CIUDAD. JUNTO A LA IGLESIA MAYOR UN INMENSO PÓRTICO MUY ANTIGUO. MUCHOS SOLDADOS. EL CUARTEL DE LA GUARDIA CIVIL ESTÁ EN UNA CALLE ANODINA FRENTE A LA MAGNÍFICA RESIDENCIA DE LOS PADRES JESUITAS.
HAGO MI PRESENTACIÓN ANTE EL COMANDANTE DEL PUESTO, QUE ES UN CABO.
CONFINADO EN DURANGO. CASTIGADO A VIVIR AQUÍ. PERO ¿SERÁ POSIBLE "VIVIR AQUÍ"?
¿MI VIDA? ¿SOLO MI VIDA? ¡NO! ¿Y LA VIDA DE "AQUELLOS"?
¡RAMAS DESPOJADAS DEL TRONCO!
TRASPLANTADO A LA FUERZA EN LA HÚMEDA Y AUSTERA VIZCAYA.

Formakuntza etengabea izan zuen, sariak jasotzen eta erakusketak egiten zituen bitartean. Sasoiko gobernuak beka bat eman zion. Horri esker, ikasketekin jarraitzeko aukera izan zuen atzerrian; Frantzia, Belgika eta Herbeheretan, zehazki.



José Manauten erretratoa.

1930. hamarkadan Espainiara itzuli zen eta irakasle lanetan hasi zen. Baina dena trunkatu zen Manauten bizitzan. Sorkuntzaz beteriko urte haiek parez pare oztopo handia aurkitu zuten: Gerra Zibila eta frankismoa. Manauten artea ez zen beharko lukeen beste heldu eta ondorioz, ez dute garaiko artista garrantzitsutzat jo.

1936ko uztailaren 18an, altxamendu militarraren egunean, Manaut Valentzian zegoen eta gurasoen etxean gelditu zen. Manautek ezkerreko ideologia zuen eta altxamendu militarraren aurka agertu zen hasieratik. Elkarte errepublikarrekin batu eta hezkuntza, dibulgazioa eta ondasun kulturalarekin zerikusia zuten zereginak garatu zituen. Zibilekin eta gerran parte hartzen zuten soldaduekin irakurketa bultzatzeko egin zuen lan. Liburuak eta eskola-materiala bilatu eta banatzen zituen. Urte haietan Miguel Hernandez poeta eta dramaturgoaren tamainako pertsonak ezagutu zituen. Errepublikako Gobernuaren kultura sailarekin ere kolaboratu zuen.

Gerraren hasierarekin batera, Madril errebeldeen menpe geratuko zen beldur ziren eta horre-




“Vagamundos”, Manauten margo bat. 1948.

gatik Gobernua Valentziara eraman zuten, 1936-ko azaroan. Espainiako hiriburuan gordetzen ziren museotako artelan garrantzitsuenak ere Valentziara eramatea pentsatu zuten eta garaiko intelektualek ere bertara alde egin zuten. Josep Renau, Arte Ederretako zuzendaria, izan zen leku-aldatze horren erantzulea. Valentzia kultura, hezkuntza eta artearen hiriburua bihurtu zen. Artea ezkerreko ideien propagandarako erabili zuten. Izan ere, gerra garaian arteak izaera merkantilista galdu zuen, eta errepublikaren aldeko mezu eta propagandarako erabili zen. Horrek Manauten lanean ere eragina izan zuen.

Ez da harritzekoa, beraz, Valentzia frankisten jomuga bihurtu izana. Garaiko errepublikar intelektualen kontrako ekintzak egiten hasi ziren eta benetako kalbarioa bihurtu zen egoera. Atxiloketak, desagertzeak eta espetxeratzeak izan ziren “gorri arriskutsuen” aurka. Zerrenda beltzak sortu zituzten artista, idazle, irakasle, katedratiko, abokatu eta abarren izenekin. José Manaut Vigliettiren izena ere zerrendetan agertzen zen, errepublikarra, masoia eta antiklerikala izateagatik. Hasieran etxean ezkutaturik bizi zen, baina gero, Madrilera ihes egitea lortu zuen. Hala ere, 1943an espetxeratu zuten, dirudienez, pertsona anonimo batek salatu eta gero.



“Presos en la galeria” Manautek kartzelan eginadako margolana.



“Vista general de la galeria”. 1943.

Carabancheleko espetxean eman zituen lehengo hilabeteak, jendez gainezka zegoen kartzelan. Zuzendariak baimena eman zion marrazteko. Ezkutuan kartzelako bizitzari buruzko apunteak hartzen zituen eta ikusten zuena marrazten zuen. Marrazki horiek frankismo garaiko espetxeen ispilu bihurtu dira, bertan argi uzten du Manautek nolako egoera negargarrian bizi ziren presoak. Horietako asko Francisco de Goyaren “Gerraren izugarrikeriak” grabatuekin parekatu daitezke. Zaragozakoak 1808. urtean Iberiar Penintsula Gerran ikusitako bortizkeria islatu zuen umore beltzez eta ironiaz beteriko grabatuetan. Manautek ere, kartzelan bizi eta ikusitakoa estilo beretsuan irudikatu zuen.

1944an Durangora erbesteratu zuten Manaut, bere familiagandik urrun zigortuta. Seme-alaba txikiak zituen eta gogorra egin zitzaion urrunduta egon zen denbora. Durangora heldu zeneko bere lehengo sentimendua tristura izan zen. Eguraldiak ere ez zion lagundu, heldu eta hurrengo 18 egunetan euriak ez zuen atsedenik eman. Mediterraneoan hazitako pertsona zen, eta eguzkia ia egunero ikusten zuen batentzat euria egunero ikustea izugarria izan zen. Manautentzat Durangon lehengo egunak oso gogorrak izan ziren, eta berak aitortu zuenez, horrek bere izaeran ere eragina izan zuen.

ekartzera behartu zuen; zeru urdinak, eguzkiaren erreflexu horiak, berde argiak... Bere irakasle izan zen Sorollaren lanen parera, eguzkiaren distiraraz bete zituen Durango eta Durangaldeko paisaiak.

Bere koadroetako paisaia idealizatu horiek maitatzera heldu zela ere aitortu zuen Manautek. Bere aurretik Dario de Regoyos pintore inpresionistak ere Durangoko kaleak erretratatu zituen. José Manautek hori oso presente izan zuen eta horregatik beste ikuspuntu bat ematea otu zitzaion. Regoyosen ikuspegi pertsonala ez zuen zapaldu nahi eta Lliriakoak bere begietatik ikusten zuena modu pertsonalean irudikatu zuen. Agian horregatik erabili zituen kolore horiek, bere sorterrikoak.

### DÍA 30

SALGO DE LA TABERNA. LLOVIZNA.
LAS CALLES DE DURANGO OFRECEN UN ASPECTO DESOLADOR.
BAJO LOS PÓRTICOS DE SANTA MARÍA VARIOS VIEJOS Y DOS CURAS PLATICAN SENTADOS EN LOS BANCOS. ESTÁN INMÓVILES COMO PERSONAS ENCANTADAS.
¿EXISTEN REALMENTE O SON ESPECTROS?
UN HOMBRE INTELIGENTE, INQUIETO, ENVENENADO POR EL TEDIO, SE HA DEJADO DOMINAR POR SU "DEMONIO"

Zorionez, Manautek apurka-apurka durangarren hurbiltasuna sumatu zuen eta horrek asko lagundu zion. Margotzen jarraitu zuen, askotan durangarrek eskatuta, eta margotzeak askeago sentitu zuen valentziarra. Durangon egindako lanetan bere izaera estetikoa berreskuratu zuen. Alde batera utzi zituen kartzela garaiko marrazki beltz, kritiko eta tristeak. Espetxeko marrazkietan errealitate gordina islatzen zen, baina aurretik egindako marrazkietan edertasuna irudikatzen zuen, kasu batzuetan hain ederra ez zena ere idealizatuz. Durangoko lanetan bere hasierako estilo hari jarraitu zion: irudi argiak, paisaiak, erretratu koloretsuak, etab. Kasu askotan, idealizazio horrek Mediterraneoko koloreak Bizkaiko herrietara

Paisaiez gain, erretratu asko ere egin zituen. Ez da baina Durangoko egotaldiko kontua bakarrik. Bere bizitza osoan erretratu eta autorretratu ugari egin zituen eta teknika desberdinak landu zituen. Kasu askotan, paisaietan baino teknika hobeagoa erakutsi zuen erretratuetan. Begiradetan, irribarreetan, espresioetan... norberaren izaera era ederrean islatzen zekien. Durangoko hainbat pertsonari egin zien erretratua, eta horietako asko herritarren etxeetako hormetan egongo dira zintzilik.



Santa Anako arkua. Manaut.

1970. urtean, Durangoko Ezkurdiko Aretoan Manauti eskainitako erakusketa bat antolatu zen, artista hil baino urtebete lehenago. Osasun arazoak tarteko, ez zuen Durangora bidaiatu, baina eskutitz bat idatzi zuen. Idatzian Durangon bere bizitza erraztu zuten pertsona batzuen izenak aipatu zituen. Horien artean aipamen berezia egin zien Bugallo familiari, Francisco eta Emilio Baquéri eta Joan Olazaran abadeari. Azken hori, Manautentzat Durangoko espiritua bihurtu zen. Haren izateko modu maitekorra, samurra eta alaia aipatzen zuen gutunean: "Bere hitzak nire misantropia sendatu zuten baltsamoa izan ziren". Sarri hitz egiten zuten kulturari buruz, eta aipatzen duenez abadeak lortu zizkion bere margoen erosleak. Berari eskerrak ezagutu zituen garaiko Durangoko hainbat herritar; Odiaga, Basilio Arana, Soldevilla, Larracoechea, etab. Olazaran ere margotu zuen Manautek.



Durangon margotzen. 1945.

## DÍA 3 DE ENERO DE 1945

CONOCER BILBAO Y EL DURANGUESADO TAMPOCO SUPONE CONOCER EL PAÍS VASCO: HAY QUE IR A GUIPÚZCOA Y A LA COSTA, SOBRE TODO (Y TENGO GRANDES DESEOS DE HACERLO PRONTO).
IMPRESIÓN BÁSICA: TRABAJO+IGLESIA+TABERNA= PAÍS VASCO.

Erbestean egotea ez da erreza inorentzat, familiatik urrun, sorterritik aldenduta, eta Manautentzat kartzelako urte horiek eta gero, Durangora etortzea zigor handia izan zen. Dena den, bertako jendeari esker, aurrera egin zuen eta espetxe garaiko marrazkiekin alderatuz, Durangon pintatutakoak askoz koloretsuagoak, baketsuagoak



Juan Olazaran Manautek egindako bere erretratoarekin.



Kurutziagako kurutzea. Manaut.



Mañaria Erreka eta Santa Ana.

eta ederragoak dira. Argi berezi batekin busti zituen Durangaldeko pasaiak. Manauti esker, gure bazterrek Mediterraneoko paisaien kutsua hartu zuten. Bere hitzetan, Durango 'Arcadia' bat da, baina zirimiri eta lanbro gehiegirekin. Hala ere, "haitz handien hondoa, haraneko laborantzak, baserriak, Ibaizabal erreka, hiribilduko bazterrak -Pinondo batez ere-, edertasun handikoak dira; paisaia natura lirikoko ñabarduretan bahetutako argi berak biltzen ditu". Horixe da Durango José Manauten hitzetan.

## DÍA 15

ESTO ES EN RESUMEN CUANTO SÉ O CONOZCO DE LA HISTORIA DE DURANGO: POCO ES, PERO ES ALGO, PORQUE CASI NADIE DE LOS QUE PREGUNTO SABEN UNA PALABRA, NI LES IMPORTA.



Alfonso Soldevilla, José Manaut, Valentín Zubiaurre eta Juan Olazarán.



**Andra Mari Basilika.** Victor Arrizabalaga Bilduma.

## DÍA 13 DE JUNIO DE 1945.

### ROMERÍA DE EZCURDI

LAS BELDADES DE DURANGO, ENTRE TANTO, SE PASEAN POR LOS ANDENES DEL PARQUE; FUE NECESARIO QUE LLEGARAN LAS FIESTAS PARA VERLAS, PUES HACEN VIDA RECATADA Y SÓLO EN LA IGLESIA, DONDE PASAN BUENA PARTE DEL DÍA, SE LAS VE SEGURAMENTE.




**1970ean, Durangon, Manauti buruz egindako erakusketako katalogoa.**

José Manaut Vigilettiren egoera ez da isolatutako kasu bat. Gerra gairako eta batez ere, frankismo garaiko artista asko espetxeratuak, erbesteratuak, erailak eta ezkutatuak izan ziren; lehen aipatutako Josep Renau bera, Picasso moduko artista ezagunak, gugandik gertuago; Arteta erbesteratua, Lekuona hila, Alcalá Galiamo eraila, etab luze bat. Garai hartako artista askoren lana ez da ezagun egin, eta batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago, haien izenak ez dira arte liburuetan agertzen. Manauten kasuan ere hori gertatu zen. Durangon, baina, egoera berezia zelako, ezagutu egiten dugu bere izena, eta, azken urteetan, Stella Manaut bere alabari eta Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateari esker, Manauten kartzela garaiko marrazkiak publikatu eta erakusketak egin dira. Horrelako lanei esker, isilaraziak izan ziren artisten lanek argia ikusten dute orain.

**Garazi Arrizabalaga** | Durangoko Arte eta Historia Museoaren koordinatzailea

elorrio

Zure bidean,
Elorrio
en tu camino







www.elorrioturismo.eus




Iurreta
Eleizateko Udala
HAZ SAC
Herritarren Arreta Zerbitzua
Servicio de Atención Ciudadana
Bidebarrieta, 5
48215-Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 946 201 200
haz-sac@iurreta.eus
www.iurreta.eus
HIRU UREN ARTEAN SORTZEN ARI GAREN HERRIA





# Barruko ibilbideak

Txelu Angoitia

Bost gonbidatuek barruko bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik.

Paisaia ikusgarriak alde batera utzita, leku xumeetara eta intimoetara begiratzeko gonbitea egiten digute, eurentzat oso bereziak diren bazterretara gerturatzeko keinua.

Sarritan bakoitzaren haurtzarora egiten dute bidaia. Rilke poeta handiak esan zuenez, horixe omen da “gure aberri bakarra”.

Munduko lekurik kutunena denez, euren burua horra loturik dago. Leku hori gure jatorria izango da urliarentzat; helmuga sandiarentzat; eta ametsen lurralde hauskorra berendiarentzat.

Ale honetara ekarri ditugun gonbidatuentzat toki horiek Durangaldean daude.




















## IGOR ELORTZA
### Autopistako aparkalekua, Iurreta

**Bertsolagunen zitalekua**
**Autopistaren ertzean**
**Ate bat irten plazara eta**
**Berriz sartzeko etxean**




LA ÚLTIMA MUJER



# LEIRE BILBAO

## Bixenta Mogel liburutegia, Durango

**Liburutegiak portuak bezalakoak dira, beti aurkituko duzu maitaleren bat itxaroten.**

# HONORIO CADARSO

## Amatsa, Iurreta

**Nafarroako Santxo IV erregeak emandakoa, Donemiliaga Kukulako monastegiaren jabegoa, eta Donemiliaga, Bermeo, Lekeitio eta Ondarroarekin lotzen zituen Ardoa eta Arrainaren Ibilbidean etapa amaiera.**

**Olerkarien ibilbidea: Alonso de Ertzilla, Bitoriano Gandiaga, Sarrionandia, Felipe Arrese, Felix de Samaniego, Esteban Villegas, eta Gonzalo de Berceo, gazteleraz idatzi eta euskaraz berba egin zuen poeta.**

**Amatzan errioxarra sentitzen naiz, nafarra, euskalduna, gurdizain, arrantzale eta olerkari. Denak bat, Ebroz bestaldeko Errioxa “Zazpiak bat” esaneko zazpigarrena balitz bezala.**







# VANESA FERNANDEZ
## Iurretako plaza

*Ixorreta*ko San Migel plazan hazi eta hezi ginen familia eta herri giroan. Egunero geure maketoen eskolara joateko hemendik pasatzen ginen. Bertan Bitori, Karmele eta Irmak euskara eta euskal kultura maitatzen erakutsi ziguten. Klase ostean, bizikleta eta bokatarekin, plaza honetara gerturatzen ginen. Beranduago kontzertuak, txosnak, ekitaldiak... etorri ziren, plaza honetan euskal kulturaz jabetu ginen.

Urtero, San Migel egunaren bezperan, familian hona etortzea mantentzen dugun ohituretariko bat da oraindik; Doniel Atxaren jasotzean, emakumeen soka gero eta indartsuagoa dela pozez ikusi, jarraian dantzari dantza parekidea, aspaldiko lagunak elkar ikusi, eta begiak bost segunduz itxiz gero, eszenatokian Maritere bere mikroarekin oraindik irudikatzen dut.

Betidanik jatorri eta arraza desberdinen elkargunea izan da Ixorreta. Herritarrek herri euskaldun eta euskalzalea izateko bidea eman diote, harro egoteko modukoa da. Beste hiri eta lekuetan bizi izan (eta izango) banaiz ere, plaza honetatik ez hain urrun jaio zen idazlearen hitzak ez ditut ahazten, *Nekez uzten du bere sorterria sustraiak han dituenak*.


ASTOR




# AITOR IRIARTE

## Elorrioko Ateneoa

**Arriola eskuratu genuenean gure ametsak gauzatzen ari ziren. Beheko solairuan komunera daraman pasabidea zegoen, zabalgune bat zuena. Hura ikusi eta, bereahala irudikatu genuen orain gehien atsegin dudan txokoa, ATENEOA. Zulo hori da musikaren kabia, Elorrixoko Klub musikala.**

**Zulo horretan, 30 urtez, neonezko eta fokuen argien itzalpean, zenbat saio, zenbat emankizun, zenbat aldiz gozatu duten gure zentzumenek jazz, blues, pop, rock eta askotariko talde ikusgarriekin!**

**Niretzat, ATENEOA musika darion leku goxo eta paregabea da.**




Zaldibar
Ayuntamiento de la Anteiglesia de
ZALDIBAR
Elizateko Udala
Sar zaitez / Entra en
www.zaldibar.org




**Abadiño**
Elizateko Udala

*Kultura Arloa*
Área de Cultura

# 10 URTE KULTURAREN ALDE

# 100 URTE HISTORIAN

UDAL MEDIATEKA 2003-2013

ZELETABE JAUREGIA 1913-2013



# «... Y PRENDEN LUZ ANTE LOS SEPULCROS»

Ander Berrojalbiz | Txelu Angoitia

Un testimonio insólito acerca del culto a los difuntos en la Vizcaya del siglo XV



Grabado de Argiñeta del libro "El oasis, viaje al país de los fueros". 1880.



Escudo de armas de León de Rosmithal.

**El 26 de noviembre de 1465** partió de Praga una comitiva de 40 viajeros, contando nobles, escuderos, cocineros, sirvientes, pajes, bufones y un laudista. Al frente se encontraba el barón León de Rosmithal y Blatna, cuñado de Jorge de Podiebrad, rey de Bohemia. La expedición, que tal vez tuviera algún tipo de motivación diplomática, se prolongó hasta bien entrado 1467 y llevó al grupo desde Bohemia a Portugal, desviándose hasta Inglaterra a la ida y visitando Italia a la vuelta.

Dos de los miembros del séquito del barón recogieron los pormenores del viaje en sendos escritos: el del escudero VáclavŠašek nos ha llegado a través de una traducción latina publicada en 1577, y el manuscrito alemán de Gabriel Tetzel, patricio de la ciudad de Nuremberg, se conserva en la Biblioteca Estatal de Baviera.

Camino de Santiago de Compostela, a finales de mayo o principios de junio de 1466, los viajeros atravesaron tierras vascas. He aquí un fragmento del relato de Šašek en el que podemos seguir el itinerario de la comitiva:

«San Juan de Luz dista cinco millas de Hernani; esta ciudad está entre montañas y pasa por ella el río Urinoco [Urumea]; en los montes que lo rodean hay tanta abundancia de manzanos que no he visto cosa igual en ninguna otra parte; los siembran como entre nosotros se siembra el cáñamo; un solo vecino o labrador es dueño de millares de ellos: la causa de sembrar tantos manzanos es que, no teniendo vino y no conociendo la cerveza, hacen con las manzanas una bebida fermentada. Esta región, cercada de montes altísimos, se llama Vizcaya; aquí vimos por primera vez las mujeres y las mozas con las cabezas rapadas, salvo algunos mechones que se dejan de cabello largo, y su vestido es tan extraño que no lo hay semejante en ninguna de las regiones que visitamos.

El camino de Hernani a Toloseta [Tolosa] son tres millas; esta última ciudad está en la falda de unos montes y por ella pasa el río Orio, muy abundante en truchas



Grabado de Cristóbal Weiditz (Siglo XVI).



[...] cabalgamos a un país aún más pobre, y allí había un pueblo malvado y asesino llamado Biskain

[...] en el país los curas han conocido las mujeres y sus peligros, y ya no predican los diez mandamientos.

**Arriba manuscrito de Tetzel, abajo fragmento del mismo.**

y que tiene dos puentes de piedra: de Toloseta a Virealium [¿Villarreal de Urrechua?] hay cuatro millas; este pueblo está rodeado de altas montañas. De Virealium a Dunaco [¿Durango?] hay cuatro millas y media; Dunaco es una aldea que está entre los montes en un valle pantanoso y dista cinco millas de Divaio [¿Bilbao?], ciudad no muy grande, pero bien poblada, situada entre montañas y por la cual pasa un río llamado Belbada, sobre el cual hay un puente de piedra; de los montes se saca hierro y hay algunos pagos de viña junto a esa ciudad, que dista del mar una milla: a otra más allá de Divaio empieza una región llamada Balmaseda».

Por su parte, Tetzel nos ofrece una curiosa descripción del país y sus costumbres:

«[...] cabalgamos a un país aún más pobre, y allí había un pueblo malvado y asesino llamado Biskain. No es este buen país para viajar con caballos, no hay heno ni paja ni cuadras y además los albergues son malos. Se lleva allí el vino en pellejos de cabras; no se encuentra buen pan, carne ni pescado, pues se alimentan de frutas en su mayor parte.

En el país los curas han conocido las mujeres y sus peligros, y ya no predican los diez mandamientos y nadie confiesa otro pecado que los que el cura predica del altar: ha hecho pecado grande o pequeño, y así no nombra ninguno por su nombre, sino que quiere haber terminado la confesión.

Y hay en el país valiosos sepulcros de piedra por los que se tiene gran predilección y especialmente las mujeres los adornan con plantas y flores aromáticas y prenden luz ante ellos; en los sepulcros, que están fuera de las iglesias, se arrodillan y sientan siempre, haya o no misa; por eso van rara vez a la iglesia.

Asimismo, en el país se distinguen los nobles; el que no lleva calzado en el pie derecho es noble».



Necrópolis de Momoitio, Garai.

El historiador granadino Juan Facundo Riaño mencionó el párrafo acerca de los «valiosos sepulcros de piedra» en una conferencia pronunciada el 1 de mayo de 1877 ante la Sociedad Geográfica de Madrid, y a propósito de la costumbre de «prender luces» comentó que «estas prácticas se condenan



Sepulcros en Miota, Elorrio.



directamente en el Concilio Iliberitano (canon 34), y [...] en los cánones XII y XIV [sic. por Concilios XII y XVI] de Toledo hay asimismo prohibiciones que parecen referirse a estas costumbres, las cuales persisten tradicionalmente, como se ve, a pesar de tantos rigores de censura».



Arriba y abajo: **Necrópolis de Argiñeta, Elorrio.**



Argizaiolas en la iglesia.



Losa agujereada en Momoitio, Garai.

El canon 34 del Concilio Iliberitano (s. IV), o Concilio de Elvira (Granada), dispone: «No deben de día encenderse cirios en el cementerio, porque no se han de inquietar los espíritus de los santos: y los que no observaren esta prohibición, sean separados de la comunión de la Iglesia». Por su parte, el canon 11 del XII Concilio de Toledo (año 681), bajo el epígrafe *De los que dan culto a los ídolos*, expone: «Amonestamos a los que dan culto a los ídolos, a los que veneran las piedras, encienden hachas, y adoran las fuentes o los árboles, que conozcan que ellos mismos se sentencian espontáneamente a muerte, porque parece que sacrifican al diablo»; asimismo, el canon 2 del XVI Concilio de Toledo (año 693) se expresa en términos muy similares a estos últimos.



En 1935 Justo Gárate presentó en sus *Ensayos euskarianos* el texto completo de Tetzel sobre su paso por tierras vascas. Al comentar el párrafo sobre el ritual que nos ocupa, Gárate apunta que, teniendo en cuenta que la comitiva probablemente viajó de Villarreal de Urrechua a Durango, los sepulcros bien podrían ser los de la necrópolis de Arguiñeta, que en la época se encontrarían desperdigados por los alrededores.

Actualmente se conservan al lado de la ermita de San Adrián de Arguiñeta, en Elorrio, 23 sepulcros de piedra que la arqueología contemporánea data entre los siglos VII y IX. Los sepulcros están además acompañados de diversas estelas, algunas de ellas adornadas con motivos de carácter astral (círculos concéntricos, prolongaciones radiales, cruciformes, orlas dentadas, etc.). Asimismo, Gárate recuerda que, según la *Micrología geográfica de la Merindad de Durango* (1634) del durangués Gonzalo de Otalora, en el siglo XVII todavía abundaban este tipo de sepulturas en el exterior de las ermitas de la comarca; extremo este confirmado a su vez por el historiador Juan Ramón de Iturriza (s. XVIII) en su *Historia general de Vizcaya*. En este sentido, cabe recordar también los sepulcros que han llegado hasta nuestros días junto a las ermitas de Miota y Mendraka.



**Argizaiolas halladas en Iurreta.**

Durante el III Congreso de Arqueología Medieval Española (Oviedo, 1989), los arqueólogos Agustín Azkarate Garai-Olaun e Iñaki García Camino ofrecieron una comunicación titulada «Pervivencias rituales precristianas en las necrópolis del País Vasco durante el medievo». Entre los testimonios arqueológicos presentados encontramos la presencia de carbones y cenizas tanto dentro como sobre sepulturas excavadas en las necrópolis de Memaia (Elorrio) y Momoitio (Garai), que datarían de los siglos XI-XII. Destacan además los autores que «en el extenso macizo de Oiz se pueden observar en torno a las ermitas de San Juan de Momoitio, Andra Mari de Andikona, San Juan de Zengotita, San Cristóbal de Iurreta, San Juan de Goitana, Santa María de Zenarruza y Santa Lucía de Gerrika, grandes losas de arenisca, apenas desbastadas, [...] [cuya] originalidad reside

en que poseen un orificio circular de siete centímetros de diámetro aproximadamente, que atraviesa de lado a lado las piezas referidas. [...] El orificio se localizaba en la cabecera de la sepultura, sobre el cráneo del difunto».

Sobre el significado del orificio, los arqueólogos apuntan que el enterramiento n.º 51 de la necrópolis de Momoitio «fue altamente esclarecedor», ya que, «por hallarse a una profundidad de 50 cm, se encontraba intacto. Sobre la cabecera de la cubierta se detectó una unidad estratigráfica formada por una acumulación de cenizas y piedras, de planta circular y espesor de 10 cm, síntoma evidente de la existencia de una pequeña hoguera».

Más adelante en su exposición, ocupándose de los «fuegos rituales» que podrían evidenciar los carbones y cenizas mencionados más arriba, Azkarate y García Camino apuntan que sería «interesante señalar que, a fines del medievo y durante toda la Edad Moderna, sigue documentándose la pervivencia de un ritual relacionado con el fuego. Para entonces, se ha producido un cambio en la ubicación de los cementerios. La relajación de la prohibición de efectuar enterramientos en el interior de las iglesias y el deseo de los fieles por ocupar lugares próximos al altar, impulsó a que los suelos de los templos –y ello es particularmente característico en el País Vasco– sirvieran de cobijo a las sepulturas. Cada una pertenecía a una familia y estaba estrechamente vinculada al caserío. Sobre ellas, en las grandes celebraciones como en los aniversarios de la muerte y en momentos importantes, ardían mechas de cera enrolladas en una tabla –"argizaiola"– interpretadas como el signo de la unión que entre vivos y muertos de un mismo solar se conservaba».



**Estelas funerarias de Argiñeta, Elorrio.**

Vemos que esta serie documental, por otra parte sucinta debido a las limitaciones de espacio, nos permite situar el testimonio de Tetzel como un eslabón en la cadena de lo que parecería ser un rito de origen pagano asimilado por el cristianismo. No obstante, puede que el ritual descrito no sorprenda menos al historiador actual de lo que sorprendió al viajero alemán del siglo XV, ya que este último, en su testimonio, nos muestra una ceremonia o costumbre según la cual,en fecha tan tardía como el año 1466,se prenden luces ante sepulcros que probablemente tendrían ya varios siglos de antigüedad y estarían ubicados en el exterior de las iglesias, y todo ello, además, en un contexto de deficiente cristianización.

Es cierto que el escrito de Tetzel podría ser fruto de la exageración, y que hay que tomarlo con cautela puesto que es la única fuente sobre dicho ritual, al menos en referencia al siglo XV. Sin embargo, el testimonio no sorprenderá tanto a los estudiosos de la brujería que en las últimas décadas han encontrado en los registros de los procesos judiciales de los siglos XIV a XVII una ventana por la que adentrarse en un mundo en el que, desde el sur de Italia al norte de Escocia, junto al dogma cristiano coexistían aún divinidades paganas, hadas, genios nocturnos y compañías de difuntos. Además, puede que para adentrarse en ese mundo hubiera que descalzarse el pie derecho, pero esa ya es otra historia.

**Ander Berrojalbiz**





TAV
AHTgelditu!
ELKARLANA
EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA
IZURTZA
UDALA
www.izurtza.net
94 681 35 48

kultura eta
kirolaren
alde

berrizko
UDALA





Markel Onaindia | Txelu Angoitia

# Bilakatu dadin bizigai HONDAKINEN BILKETA ETA BIRZIKLAPENA DURANGALDEAN

*Izarren hautsa, egun batean, bilakatu zen bizigai.* Letek konposatu eta Laboak famatu egin zuen abestiak dioen bezala, birziklapenetik ginaden gu ernai.

Naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea omen da gure jakintza, gure sustraiak lurrari lotuz irautea. Irautea azken hatsa eman arte, zirkulua osatu eta berriro gure lurrera bueltatzeko, ongarri bihurtuta. Kontua da, bide horretan hondakinak sortuz eta sortuz bizitzen garela, kasik atsedenik hartu gabe. Baina, saia gaitezen bide on bat aukeratzen.

Azken hamarkadetan biderkatu egin da sortutako hondakin kopurua. Euskal Herrian, 1990ean halako bi zabor sortu zituen 2010ean herritar bakoitzak, Joseba Azkarraga Etxagibel soziologo abadiñarrak *Euskal Harriak* saiakera liburuan idatzi zuenez (Alberdania, 2011). Bere analisien arabera, euskaldunon kontsumo maila mundura hedatuko balitz, guk bezainbeste baliabide gastatuz eta guk bezainbeste hondakin sortuz, gizateriak hiru planeta beharko lituzke bizirauteko. Zer pentsatua ematen du.



# BIRZIKLAPEN TASA

# %33,6













Ekonomia zirkularraren grafikoa.

Eraiki dugun bizi ereduari, kontsumoari eta ondorioei erantzun egoki bat emateko, ezinbestekoa da birziklapen tasa handiak lortzea. Erabilitakoari berriro bizia ematea, hain zuzen. Hala ere, jasangarri izateko kopuruetatik urrun gabiltza oraindik, mundua orokorrean ulertuta. 2020erako %50eko birziklapen tasara ailegatzeko aholkua eman du Europar Batasunak, eta herrialdeek norabide horretan egin beharko dute lan. Durangaldeari begira, esaterako, %33,6ko birziklapen tasa daukagu 2017ko datuak kontuan hartuz gero. Iaz 10.690.084 kilo materia jaso ziren Amankomunazgoak bilketa gestionatzen duen 8 udalerrietan, eta horietatik 7.098.690 kilo errefusa zen (%66,4), Zabalgarbiko errauskailura eraman zena. Labaren beroagaz energia sortzen den arren, bigarren erabilerarik ez zaio ematen materia horri, eta keagaz ingurunea kutsatzeko arriskua dakar gainera.

Amankomunazgoak 12 behargin dauzka hondakinen bilketa zerbitzua aurrera eramateko, gidariak, peoiak eta teknikariak kontuan hartuta. Augusto Uriarte da zerbitzuaren arduraduna. Iurretako Santa Apolonia auzoan dituzte instalazioak, eta handik irteten dira kamioiak eskualdeko herrietara. Lau dira bilketarako erabiltzen diren kamioiak, eta beste batek kontainerrak garbitzen egiten du lan. Organikoa, errefusa eta papera eta kartoia batzen dituzte; gainerakoak hitzarmenen bidez kudeatzen dira. Ontzi arinak Aldundiaren menpeko Garbiker enpresak jasotzen ditu, beira Ecovidrio fundazioak, eta berriz erabili daitezkeen gaiak Caritasegaz lan egiten duen Koopera elkarteak. Guztira 1.258 kontainer daude Amankomunazgoaren zerbitzua duten 8 udalerrietan (horietako 16 olioa batzekoak dira, udalek ipintzen dituztenak). Horrez gainera, bilketaz kanpo geratzen diren gaiak hartzeko Garbigunea dago Durangoko Montorretan, Garbikerrek kudeatzen duena (bilketa osoaren %9,21 jasotzen da bertan).

Bestalde, Aldundiak baserriko hondakinen gaikako bilketa ere kudeatzen du, kasu honetan Urkiola Landa Garapenagaz (ULG) eta DIBA kooperatibagaz batera. Garbigunean bertan jasotzen dituzte hondakin fitosanitarioak, eta gai zoosanitarioen bilketa hiru hilerik behin egiten da DIBAren egoitzan. Artilearen eta plastikoaren bilketari dagokionez, ULGra deituta aurrez izena eman behar izaten dute baserritarrek, gero langileak euren etxetik pasatzeko.

# BIRZIKLAPENA GAIKA

**BIRZIKLAPENA 2017an**
**1.058 kilo**
BILKETA OSOAREN
**%0,01**



## Pilak




**NORA.** Ecopilasekin hitzartuta dute, eta birziklatu egiten dira.

**BIRZIKLAPENA 2017an**
**97.380 kilo**
BILKETA OSOAREN
**%2,28**



## Organikoa

**ZER BOTA:** Barazkiak, fruta, haziak, fruitu lehorrak eta euren azalak, zerealak, landare-produktuen hondakinak, ogi eta opilen hondakinak, sukaldeko papera, komuneko paperaren tuboa, paper-zapiak, infusio-boltsak, kafe hondarrak, botilen kortxo naturalak.

**ZER EZ BOTA:** Animalia-jatorriko janari hondakinak, ez kozinatuak eta ezta prestatu gabekoak ere. Animalien gorotzak.



**NORA.** Lehenik Igorreko transferentzia gunera, eta gero Bizkaiko konpostegira (Garbiker). Lurren ongarri den konposta egiteko bideratzen da.

BIRZIKLAPENA 2017an

**1.023.282 kilo**

BILKETA OSOAREN

**%9,57**



# Papera eta kartoia

**ZER BOTA:** Egunkariak, aldizkariak, kartoiak, folioak, kartoi eta paperezko kaxak, kartoizko arrautzontziak, paperezko poltsak, koadernoak, karpetak...

**ZER EZ BOTA:** Zelofan-papera, aluminio-papera, tetrabrikak, argazkiak, paper termikoa, sukaldeko papera, pixoihalak...



**NORA.** Paperezko materialak sortzeko birziklatzen da. Zornotzako enpresa bati saltzen diote.

BIRZIKLAPENA 2017an

**7.098.690 kilo**

BILKETA OSOAREN

**%66,4**



# Errefusa

**ZER BOTA:** Gaikako bilketak eragiten ez dien hondakinak dira, eta bilketa zerbitzutik kanpo ez daudenak.

**ZER EZ BOTA:** Inausketa-hondarrak, obretako hondakinak, lurrak, enbalajeak, zumitzak, paletak, pneumatikoak, bidoiak, animaliak...



**NORA:** Lehenik Durangoko transferentzia gunera, eta gero Bilbora, Zabalgarbira. Errausten egiten da, eta beroagaz energia sortu.

BIRZIKLAPENA 2017an

**628.605 kilo**

BILKETA OSOAREN

**%5,88**



## Beira

**ZER BOTA:** Botilak, lurrin-ontziak, kosmetikoak, kontserben beirazko ontziak.

**ZER EZ BOTA:** Bonbillak, lehioetako kristalak, ispiluak, betaurrekoak, pitxerrak, edalontziak, portzalenak, zeramika...



**NORA:** Ecovidrio fundazioagaz hitzarmena dute, eta Enviser enpresak batzen du. Beirazko produktu berriak sortzeko erabiltzen da.

BIRZIKLAPENA 2017an

**448.716 kilo**

BILKETA OSOAREN

**%4,2**



## Ontzi arinak

**ZER BOTA:** Horrelako ontziak: Garbiketa produktuak, xaboiak, jogurtak, freskagarriak, olioa, aerosolak, kontserbak, metalezko tapak, tetrabrikak, plastikozko ontziak, bilkarriak, metalezko eta palstikozko tapoiak.

**ZER EZ BOTA:** Paperezko eta kartoizko kaxak, beirazko ontziak, plastikozko jostailuak, etxetresna elektrikoak, biberoiak, gomazko eskularruak, orraziak, eskuilak, zartaginak, kazolak...



**NORA:** Garbikerrek batzen du, eta ontzi berriak egiteko birziklatzen da.

BIRZIKLAPENA 2017an
**79.601 kilo**

BILKETA OSOAREN
**%0,74**



## Berrerabiltzekoak

**ZER BOTA:** Berriro erabiltzeko moduan dauden gaiak: Arropa, zapatak, osagarriak, liburuak, jostailuak, bazar artikuluak, gailu elektroniko eta elektriko txikiak.



**NORA:** Kooperak batzen du, eta beharrizana dutenen alde erabiltzen dute; zuzenean emanda edo euren dendetan salduta etekina aterata.

BIRZIKLAPENA 2017an
**181.100 kilo**

BILKETA OSOAREN
**%1,69**

## Bolumen handikoak

**ZER BOTA:** Etxeetako altzariak eta gauzak

**ZER EZ BOTA:** Obra hondakinak, altzari eta etxetresna zatiak...



**NORA.** Igorreko transferentzia gunera. Berriz erabiltzeko ematen dira.



ORGANIKOA

# 5.000

## lagun birziklatzen



Bizkaiko konpostegia (Garbiker).

Jorratzen ari garen gaiari lotuta, azken urteetako nobedade nagusia organikoaren bilketa da. Birziklatuz gero, konposta sortu eta lurrarentzat ongarri bihurtzen den materia bizia da. Amankomunazgoak 2014an ekin zion organikoa batzeari; hasieran Iurretan eta Traña-Matienan soilik, eta gero beste herri guztietara hedatzen joan zen proiektua. Dagoeneko indarra hartu duen egitasmoa da, estimazioen arabera 3.600 pertsonak erabiltzen baitute kontainer marroia, eta 1.387k autokonpostajea egiten dute euren etxeetan. Giltzagaz zabaltzen diren 73 edukiontzi daude kaleetan, eta 404 konpostagailu baserrietan edo lande eremuko etxeetan.




Kontainer marroiren aurkezpena.

Amankomunazgoa dinamika hau handitzeko ahaleginean dabil herritarrak kontzientziatzeko kanpainen bidez, organikoaren birziklapena areagotzeak errefusaren murriztea ekarriko lukeelako. Batutako materia Aldundiko instalazioetara eramaten dute konposta egiteko, eta han, animalia jatorriko hondakinak ez eramateko baldintza ezarrita dute. Baina, beste eskualde batzuetan lortu dute hitzarmen hori zabaltzea, eta Durangaldean ere gauza bera lortu gura dute. Okela edo arrain arrastoak botatzeko aukera edukita, organikoaren birziklapena asko handituko litzatekeela uste dute hemengo arduradunek.

Bestalde, Aitor Lopez Amankomunazgoko presidenteak nabarmendu du autokonpostajea dela aukera efizienteena eta ingurugiroarekiko errespetuzkoena. Izan ere, prozesua lekuan bertan egiten da; kaleko edukiontzietan jasotzen den organikoaren kasuan, ostera, Bilboko Zabalgarbira eramaten da konposta egiteko, eta gero bueltan ekartzen da beharrezko denean. Garraio horrek trafikoaren kutsadura dakar.

# Durango

## Organikoaren apustuan murgiltzera




A mankomunazgoko parte izan arren, hondakinen bilketa bere kabuz gestionatzen du Durangoko Udalak. Eskualdeko zerbitzura batzeko asmoa agertu zuenean, herrian bilketa egiten zuen enpresako langileekin gatazka eduki zuen; Amankomunazgoak zuzenean kontratatzen ditu behargiñak, era publikoan, eta arlo pribatutik publikorako subrogazioa ez denez posible, lanpostua arriskuan ikusi eta protesta egin zuten langileek. Azkenean, gauzak bere horretan uztea erabaki zuen udalak. Gaur egun, hondakinak batzeko eta kaleak garbitzeko, azpikontratatutako 49 behargin erabiltzen ditu udalak.

2019a urte garrantzitsua izango da Durangorentzat, organikoaren bilketa martxan ipiniko duelako. Aurrez aipatutako kontratua berritu du, eta materia organikoa biltzea da baldintza berrietako bat. %42ko birziklapen tasa dutela kalkulatu dute -Garbiguneko datuak kontuan hartuta-, eta organikoagaz handitzea espero dute. 2020an %60ra heltzea dute helburu. Aitziber Irigoras alkateak organikoaren sailkapenean parte hartzera animatu ditu durangarrak.

Aipagarria da durangarren %56 organikoa bereizten hasteko prest agertu zirela udalak duela zenbait hile egindako inkestan. Hondakinen bilketarako zerbitzua hobetzeko iritziak jasotzea zen asmoa, eta 3.000 inkesta egin zituen etxerik etxe. Birziklapen orokorraz galdetuta, %66k zioen nahikoa sailkatzen dutela etxean; %20k guztia; %9k gutxi eta %5ek ezer. Birziklatzen dutenen %90ek ingurumenarekiko kontzientziazioagatik egiten dute.

# Berriz eta Otxandio

## Aitzindariak denboran eta ereduan

Herri txikiagoak dira Berriz eta Otxandio, baina organikoaren bilketan badute zer kontatua. Biak Amankomunazgotik kanpoko udalerriak, Berrizek bere zerbitzuekin eta hitzarmenekin kudeatzen du hondakinen gaia, eta Otxandiok Arabako mankomunitate baten bidez. Berriz izan zen organikoaren ildoan sartu zen eskualdeko lehen herria, 2012an, konpostajeagaz lotutako esperientzia pilotu herrikoi batzuen ostean. Berriziklatu izeneko kanpaina hasi, eta Berrizburun konpostaje planta eraiki zuten. Organikoa aterik ate batzen hasi ziren lehenik, eta gero edukiontziak ere ipini zituzten kaleetan. 2017an, 56.699 kilo batu zituztela kalkulatu dute udal arduradunek.

Otxandioren kasuan, hiru urte dira organikoa bereizteko proektuari ekin ziotenetik. Herrian berdegune ugari dituztela jakinda, auzokonposta eta auto-

konposta egitea erabaki zuten. Proba moduan auzo-konpostagailu bat ipini zuten, eta ondo funtzionatzen zuela ikusita, egitasmoa hedatu zuten. Gaur egun zazpi auzo-konpostagailu daude kalean ezarrita, bakoitzean 18-25 familiak uzten dituztelarik hondakinak. Guztira 130 bat familiak parte hartzen dute, otxandiarren herena gutxi gorabehera. Norbere ortuetan autokonposta lantzen dutenak gehituta, Otxandioko biztanleen %40 dabil organikoa birziklatzen. Datu benetan esanguratsua izan arren, horregaz konformatu ez, eta%70era ailegatzeko esperantza dute udalean.



**Zabalgarbiko errauskailua.**

# Mallabia

## Gipuzkoako zaborrik ez

Bizkaia izan arren, Gipuzkoako Debabarrenako mankomunitateagaz gestionatzen du Mallabiak hondakinen atala. Organikoaren kasuan, auzo -konposta sustatzen dute, eta aurten kontainer marroiak ere ipini dituzte. Herrian sortzen diren zabor edo hondakinak Gipuzkoara joaten dira eta, begira zelakoa den bizitza: herria Gipuzkoako hondakinen helmuga bihurtzeko zorian egon da aurten.



**Auzo konpostajea Mallabian.**

Gure ekialdera dagoen herrialdean, hondakinak kokatzeko duten arazoa konpondu asmoz errauskailua eraikitzen ari dira, Zubietan. Baina, hori amaitu bitartean, 60.000 tona errefusa nonbaitera bidaltzeko beharra dute. Gipuzkoako Aldundiak lehiara atera zuen zerbitzua, eta Mallabiko Betearte zabortegia zen aurkeztutako hautagai bakarra. Albistea jakin zenean, kezka sortu zen herrian, eta udalak proiektuaren aurka presioa egin zuen, EAJ eta EH Bildu alderdiek bat eginda eta Igor Agirre alkate jeltzalea buru zela. Azkenean, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiak akordiora heldu ziren hondakinak Mallabira ez ekartzeko; zati bat Bilboko Zabalgarbiko errauskailuan jasoko dute eta bestea Mutiloan.

Berez ez da hiri hondakinak jasotzeko leku bat Betearte isurtegia, arrisku bako hondakinentzako baizik. Hala ere, hori egin ahal izateko baimena eskatu zuen Eusko Jaurlaritzan. EH Bilduk salatu du zabortegien arloan mundu mailan lan egiten duten lau enpresa handi daudela Betearteren atzean, eta horietako bi Urbaser eta FCC direla, Zubietako errauskailuaren eraikuntzan dabiltzanak hain zuzen ere.

**Markel Onaindia** | Kazetaria

IURRETA
KOPISTEGIA

Bidebarrieta 1 - 48215 Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 94 681 10 70
www.iurretakopi.com




MALLABIA
www.mallabia.eus
AUKERAN, EUSKARAZ!

PARRA taberna
www.parrataberna.com
Herriko plaza 2
Elorrio

OPTICALIA

DURANGO

Plza. Ezkurdi, 1
48200 – Durango
Telf.: 946 20 15 71

GALDAKAO

Euskadi, 4
48960 – Galdakao
Telf.: 944 56 12 83

Bizkaia
CIF B48296354

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA

Askatasun etorbidea 1, DURANGO - Tfno: 946817658

Sabino Arana 1, ZORNOTZA - Tfno: 946308722




Autocares
Mallabia




Tlf. 946 201 976
Fax 946 202 348
Móviles 649 403 770 / 773

www.autocaresmallabia.com
info@autocaresmallabia.com




## 2007

Nuestros fotógrafos locales

Andrazkoak Durangaldeko jai eta dantzetan

Lobiano, un palacio en Ermua

Ezkurdi, espacio arquitectónico y social

AHT Durangaldean zehar

Irakaskuntza Durangon XVIII. mendean

Momoitio

La argizaiola en el Duranguesado

Aisti

Abadiño oinez




## 2008

Sorginkeria durangoko merindadean

Garai, atalaya de los Zubiaurre

"Otxandioen" lan abentura

Fusilados del franquismo

Elorrio, una villa medieval

Durangoko udal artxiboa

Rock local

Arriola, 20 urte

Portafolio / Pablo Garitaonandia

Ardoa eta arrainaren ibilbidea




## 2009

De aviones y maizales

Urkiola, 20 urte

Tierra de durango

Etorkinak, los nuevos vecinos

El castillo de astxiki

Dultzaina

Funcor

Pelotaris

Barruko ibilbideak

Portafolio / Luis Madina




## 2010

Cruz de Kurutziaga

Arrazolako eta Axpeko meategiak

Gaztetxeak

Bertsolariak 1950-60

Fundición

Zinemagintza

Martin de Beratua

Otxandioko limitadua

El palacio Iturri

Barruko ibilbideak

Balneario de Zaldibar

Merioaren ibilbidea




## 2011

Los caballos rojos de Askondo

Durangoko emakumeen kartzela

Arria: la energía de un rio

Durangaldea 2027

Durango: estación central

Errebonbiloak: bolbora usaina

Patrimonio en peligro

Bizkaiko zuzenbide zibila Durangaldean

Petroleo en Elorrio

Barruko ibilbideak

Atxondo: hirurak bat




## 2012

Durango pudo ser Detroit

Garaitik Marokora eta itzulera

Anarquistas en la segunda república

Eskualde baten mila aurpegi

La edad de oro del caserio

Barruko ibilbideak

1212: la incorporación de Durango a Bizkaia

Eitzaga, Zaldibarko ekialde urruna

Arquitectura funeraria

Elorrioko plaza

Zornotzako bataila




## 2013

Aquellos maravillosos Sanantonios

Auzo-elkarteen borrokak

Txakolina, urteko ardoa?

La fábrica de armas de Durango

Barruko ibilbideak

Durango en el grabado

Ermua, milaka etorkinen harleku

El misterio de Mikeldi

Elorrioko monastegiak eta komentuak

Pasión por la búsqueda




## 2014

Agur geltokia

Durangoko aratusteak

Berriztik mundura

Erlojugileak eta erloju publikoak

Parra taberna, más que un bar

Urkiolako isiltasun gordeak

Durangaldea en los mapas

Los herejes de Durango

Dario de Regoyos

Macroproyectos en el olvido




## 2015

Gerediaga Elkartea, 50 urte 7 presidente

Atxarte 1990/91, crónica de una lucha

Durangaldea, euskal automobilgintzaren motorra

Lorentzo Records, mimando el rock

Anbotoko dama, goiandere ala deabru?

Los orígenes de la villa de tabira

Elorrio, gerrako frontea

Zaldibar, la casa del hombre malo

Otxandioko plaza azpian




## 2016

Soterramiento, un tren de doble vía

Humboldt gure artean

Paisajes industriales de Durangaldea

Anbotoko herejeak

La escuela experimental de Elorrio

Durangoko plateruak




## 2017

Artzainak: XXI. mendean, pasioa bizirik

A la luz de un mismo sol

Ukatutako iragana berreskuratzen

Arte y espacio público

Argazkilari minuteroak

Los encinares cantábricos de Durangaldea

Durangaldeko herri-izenak

Mancomunidad de Durango, una comarca incompleta

Berrizko Besoitaormaetxea

astola

**94 681 80 66**
**telefonoan salgai**

SAREAN IKUSTEKO:
**www.gerediaga.eus**



Durangaldeko Adiskideen
gerediaga
elkartea

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

DURANGO
Udala · Ayuntamiento

bbk